



I. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 359/2024 FORU AGINDUA, urriaren 15ekoa, zeinaren bidez onesten baita hileko autolikidaziorako 322 eredu (banakako eredu, balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde-taldeen araubide bereziari dagokiona), bai eta horren aurkezpen elektronikoa ere.

Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboek erabiltzen dute 322 eredu, baldin eta erakunde-taldeen araubide berezia aplikatzea hautatzen badute, zeina Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren IX. tituluaren IX. kapituluaren jasota baitago, banakako autolikidazio gisa erabiltzeko.

Indarrean dagoen eredu Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren urtarrilaren 20ko 138/2014 Foru Aginduaren bidez onetsi zen, horren bitartez onetsi baitziren balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde-taldeen araubide berezian daudenen hileko autolikidaziorako 322 eredu (banakakoa) nahiz 353 eredu (agregatua) eta beraien aurkezpen telematikoa.

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. 5/2020 Foru Arauaren onespeneraren bidez, aurrerapen kualitatiboa egin da Bizkaian Batuz izeneko estrategia osoa ezarriz, ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien tributazioa kontrolatzeko, haien tamaina- edo eragiketa-bolumena edozein dela ere. Halaber, aurrerapauso bat da zergadunei zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean.

Batuz sistemak funtsezko hiru osagai ditu: fakturazio-sistemetan tresna teknologiko berriak ezartzea, zergadunek neurri teknologiko aurreratuak nahitaez erabili beharra erabakita; jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona guztiek, fisikoak zein juridikoak izan, informazioaren gainean dituzten betebeharrak parekatzea, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua eramateko betebeharra ezarrita; eta Bizkaiko Foru Ogasunak aitortzen zizkizanak jartzea zergadunen esku, beren zerga-betebeharrak errazago bete ditzaten, betiere beren jarduera ekonomikoen etekinak zergapetzen dituzten zerga nagusiei dagokienez.

Aitortzen zizkizanak dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua (2022 eta 2023rako Batuz sistemara borondatez atxikitze baldintzak eta aplika daitekeen konpentsazioa zehazten dituenak, eta hainbat zerga-erregelamenduan zenbait aldaketa sartzen dituenak) ezartzen du foru-agindu bidez zehaztuko direla sistema horri lotutako betebeharrak borondatez betetzera atxiki diren zergadunek autolikidazio edo aitortzen zizkizanak eskuragarri jartzeko eskatu ahal izango dituzten zerga-ereduak.

Testuinguru horretan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 322 ereduaren autolikidazio-zirriborroak eskatzeko aukera aztertuko da orain.

Aipatutako autolikidazio-zirriborroak zergadunei beren zerga-betebeharrak betetzeko laguntzeko bitarteko bat dira, eta foru-agindu honetan arautzen den eredu aurkezteko epea amaitu aurreko lehen egunetik bigarren egun baliodunera arte eskatu ahal izango dira.

Era berean, adierazi behar da zirriborroa eskuragarri jartzeko beharrezkoa dela zergadunek alde aurretik eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez; horren edukia bat etorriko da eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetan ageri den likidazio-aldiari buruzko informazioarekin (liburuok Sozietateen gaineko Zergaren Foru



Arauaren 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 114. artikuluan aipatzen dira).

Zirriborroa egin ondoren, zergadunak zergaren autolikidazio zuzenerako beharrezkoak diren datuak eta dokumentazioa egiaztatu, aldatu edo emango ditu, dagokionaren arabera. Ildo horretatik, kontuan hartu beharko da zirriborroa jasotzeak ez duela inolara ere zergaduna salbuetsiko Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko betebeharretik, baldin eta zerga hori arautzen duen araudiaren arabera horretara behartuta badago.

Azkenik, adierazi behar da zergadunak autolikidazioaren zirriborroa erabili ahal izango duela hura aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ezarritako prozedurari jarraituz.

Hori dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako ahalmena baliatuta,

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

HILEKO AUTOLIKIDAZIORAKO 322 EREDUA, BANAKAKO EREDUA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERAKUNDE-TALDEEN ARAUBIDE BEREZIARI DAGOKIONA

1. artikulua. — 322 eredia onestea

1. Onetsi da foru-agindu honen eranskin gisa gehitu den 322 eredia («Erakunde-taldea. Hileko autolikidazioa. Banakako eredia»).

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde-talde batekoak diren subjektu pasiboek aurkeztuko dute eredia, bat etorri Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 163.quinquies.Bat artikuluan ezarritakoarekin, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Arauaren IX. tituluko IX. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatzea hautatu badute.

2. artikulua. — 322 eredia telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak

1. 322 ereduari («Erakunde-taldea. Hileko autolikidazioa. Banakako eredia») dagokion autolikidazioak telematikoki aurkeztea nahitaezkoa izango da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da.

2. Autolikidazioak telematikoki aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Sarbidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, informazioa eskuratzeko eta jarduketak izapidetzeko segurtasun osoz.

2. Aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkariak, egoitza elektronikoan horretarako ezarritako sistemak erabiliz identifikatu beharko du bere burua, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Halaber, honako izapide hau ere hautatu beharko du: «Balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztea (BEZaren banakako aitortpena), 322 eredia («Erakunde-taldea. Hileko autolikidazioa. Banakako eredia»)). Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan adierazitako izapidetze-jarraibideak bete beharko ditu.

3. 322 ereduari dagokion autolikidazioa telematikoki aurkezteko, aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkariak bidali beharreko autolikidazioa duen fitxategia sortu beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak garatutako programak soilik erabiliz. Programek aldi bakoitzean autolikidazio bakarra duen fitxategia sortuko dute.

Halaber, aurkezpen telematikoa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen web-formularioaren bidez egin ahal izango da.



Azken kasu horretan, zergadunak zergaren autolikidazioa aurkeztu ahal izango du, Ogasun eta Finantza Sailak eskuragarri jarritako zirriborroan jasotako datuetatik abiatuta, foru agindu-honen II. kapituluaren ezarritako baldintzekin bat.

4. Bidalitako autolikidazioari dagokion aitortzaileak egoitza elektronikora sartu den erabiltzailea izan behar du. Autolikidazioa baimendutako ordezkariak aurkezten badu, ordezkatzeko dituenetako bat izan behar du, foru-agindu honen 5. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.
3. Akats formalak dituzten autolikidazioak aurkeztea.

Autolikidazioak telematikoki betetzean akats formalik egonez gero, inguruabar horren berri emango zaio aitortzaileari, sistema bera erabiliz: akats-mezuak bidaliko zaizkio, akatsok konpon ditzan.

3. artikulua. — 322 eredua aurkezteko epea

1. 322 ereduari dagozkion autolikidazioen aurkezpen telematikoa hileko likidaziorako epea amaitu eta hurrengo hileko lehen 25 egun naturaletan egingo da, uztaileko likidazio-epeari dagokiona izan ezik; izan ere, abuztuan eta iraileko lehen 25 egun naturaletan aurkeztuko da. Aurrekoa gorabehera, abenduko aurkezpen telematikoa hurrengo urtarrean egingo da.

Abenduko autolikidazioa azken autolikidaziotzat hartuko da eta hurrengo urtarilaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko da. Subjektu pasibo horien 390 eredua, BEZaren azken autolikidazioari buruzkoa, laburpen informatiboa izango da.

3. Aurreko apartatua xedatutakoa gorabehera, konkurtsoan deklaratu den erakunde-talde batekoak diren subjektu pasiboek 303 ereduaren bi autolikidazio aurkeztu beharko dituzte aldi horretan: lehenengoak barne hartuko du likidazio-aldia hasten den egunetik konkurtso-deklarazioaren aurreko egunera arte bitarteko epea, eta bigarrenak, berriz, barne hartuko du konkurtso-deklarazioa egiten den egunetik likidazio-aldia amaitzen den egunera arteko epea; nolahi ere, jarraitu beharko dute hilero 303 eredua aurkezten.

4. artikulua. — Lankidetzaren hitzarmenak edo -akordioak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onetsi zuen 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuko 48. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ogasun eta Finantza Sailak lankidetzaren hitzarmen edo -akordio bidez baime-na emango die erakunde edo elkarte aintzatetsi batzuei euren bazkide edo kide diren profesionalen autolikidaziorako 322 eredua bide telematikoen bitartez aurkezteko, beste batzuen izenean.

2. Aurreko zenbakian aipatutako profesionalen kasuan-kasuan behar den ordezkari-tza izan behar dute 322 ereduaren autolikidazioak telematikoki aurkezteko. Profesional horiek Ogasun eta Finantza Sailak eskatzen dien guztietan frogatu behar dute euren ordezkari-tza, lankidetzaren hitzarmen edo -akordioan ezarri bezala.

II. KAPITULUA

322 EREDUKO AUTOLIKIDAZIOAREN ZIRRIBORROAK

5. artikulua. — Autolikidazio-zirriborroak

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoari jarraituz (horren bidez, 2022rako eta 2023rako Batuz sistemara berraztertze atxikitze baldintzak zehazten dira, bai eta aplikatu beharreko konpentsazioa ere, eta zenbait aldatuta sartzen dira hainbat tributu-erregelamendutan), balio erantsiaren gaineko zergaren 322 ereduari («hileko autolikidazioa, banakako eredua, balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde-taldearen arabide bereziari dagokiona») dagokion autolikidazioa aurkeztu aurretik, Ogasun eta Finantza Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez, eta zergadunek eskatu ondoren, eskuragarri jarriko ditu balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioaren zirriborroak.



2. Zirriborro horiek egiteko, Ogasun eta Finantza Sailak eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetan ageri den likidazio-aldiari dagokion informazioa izango du abiapuntu. Liburuok Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 114. artikuluan aipatzen dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eraman diren eragiketak jasotzen dituzte.

3. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin behar da, foru-agindu honen 3. artikuluan aurreikusitako eredia aurkezteko epea amaitu aurreko lehen egunetik bigarren egun baliodunera arte.

Horretarako, aitortzailea edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkaria identifikatzeko, egoitza elektronikoan horretarako ezarritako sistemak erabili behar dira, uztailaren 21eko 112/2009 oru Dekretuaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko onartutako Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, eta dagokion aukera erabili behar da zirriborroa eskatzeko, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan adierazitako izapidetze-jarraibideak bete ere.

4. Ogasun eta Finantza Sailak zirriborroak eskuragarri jarri ondoren, zergadunak zerga behar bezala autolikidatzeko beharrezkoak diren datuak eta agiriak egiaztatu, aldatu edo emango ditu, dagokionaren arabera.

5. Ogasun eta Finantza Sailak autolikidazio-zirriborro bat aurkeztu arren, zergadunak balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztu behar du Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, baldin eta zerga hori arautzen duen araudian horretarako betebeharra duela adierazten bada.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — Arauak indargabetzea

Foru-agindu hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 138/2014 Foru Agindua, urtarrilaren 20koa, zeinaren bidez onetsi baitziren balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde-taldeen araubide berezian daudenen hileko autolikidaziorako 322 eredia (banakoa) nahiz 353 eredia (agregatua) eta beraien aurkezpen telematikoa, 322 ereduari dagokion guztian.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen Iragankor Bakarra. — Zirriborroak eskatzeko epea

Foru-agindu honen 5. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitakoa gorabehera, zirriborroak foru-agindu honen 5. artikuluan aurreikusitako aurkezpen-epea amaitu aurreko lehen egunetik laugarren egunera arte eskatu ahal izango dira, honako kasu honetan:

Erakunde-taldeen araubide berezia hautatu duten subjektu pasiboek dagokienez, 2024ko irail, urri, azaro eta abenduko likidazio-aldiei aplikatuko zaie, bai eta 2025eko urtarriletik abendura bitarteko likidazio-aldiei ere.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru-agindu hau.

Bilbon, 2024ko urriaren 15ean.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA



Balio Erantsiaren Gaineko Zerga Erakunde taldea. Banakako eredu	322
Hileko autolikidazioa	1. or.

Likidazio zk.

Ekitaldia	Epea	Autolikidazio osagarria	01		
Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketen hartzailea	151	Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera	152	Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera ezeztatzea	153
Identifikazioa					
IFZ	Izendura edo sozietatearen izena				
Jarduera nagusia	EJZ epigrafea / kodea				
Nagusia	02	Taldearen zk	03	BEZFAren 163 sexies. Bost artikuluan araututako araudi bereziaren modalitatea aplikatzen duen subjektu pasiboa	06
Menpekoa	04	Erakunde nagusiaren IFZ	05		
Harremanetarako pertsona					
Deiturak eta izena				Telefonoa	
Likidazioa	Sortutako BEZ	Zerga oinarria		Tasa	Kuota
		51		%0	52
		07		%4	08
		53		%5	54
		09		%10	10
		11		%21	12
		56		%0	57
		13		%4	14
		58		%5	59
		15		%10	16
		17		%21	18
		19		%0,5	20
		21		%1,4	22
		23		%5,2	24
		25		%1,75	26
Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-eskuraketak				28	
Subjektu pasiboa inbertitzearen ondorioz sortutako BEZa				30	
Oinarrien eta kuoten aldaketa, orokorra				32	
Oinarrien eta kuoten aldaketa, BEZFAren 80. artikuluko 3. eta 4. zenbakiak				46	
Sortutako kuota, guztira (52) + (08) + (54) + (10) + (12) + (57) + (14) + (59) + (16) + (18) + (20) + (22) + (24) + (26) + (28) + (30) + (32) + (47)				33	
BEZ kengarria	Taldea barruko barne-eragiketako BEZ kengarria			34	
	Beste barne-eragiketa batzuetako BEZ kengarria			35	
	Inportazioetako BEZ kengarria			36	
	Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-eskuraketako BEZ kengarria			37	
	Konpentsazioak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzen araubide berezian			38	
	Inbertsioen erregularizazioa			39	
	Lainaren behin betiko ehuneko aplikatzearen ondoriozko erregularizazioa (bakarrik 12. hilabeteen)			55	
	Kentzekoa, guztira ((34) + (35) + (36) + (37) + (38) + (39) + (55))			40	
	Diferentzia ((33) - (40))			41	
	Kuoten erregularizazioa (BEZari buruzko Foru Arauaren 80.art.Bost.5.a)			42	
Bizkaiko zerga-ordainketaren portzentajea		43	%		
Bizkaia dagokion kuota ((41) + (42)) x (43)				44	
Taldeen sartu aurreko ekitaldiei dagozkien konpentsatzeko kuotak				45	
Bizkaiko Foru Aldundian, gainerako Foru Administrazioetan edo/ta Estatuko Administrazioan batera zergak ordaindutako subjektu pasiboei bakarrik zuzenduta.		Emitza ((44) - (45) + (60))		49	
Urteko erregularizazioaren emitza		60	Jarduerarik gabe	50	
Bidalketaren data eta zenbakia					
Foru Ogasunaren ziguilu elektronikoa					



IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena	Ekitaldia	Epea	2. or.
-----	--	-----------	------	--------

Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren eraginpeko eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboentzat baino ez

Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu ahal zaien edo araubide horren eraginpean dauden ondasunen eta zerbitzuen eskuraketan zenbatekoak

	Zerga-oinarria	Jasandako kuota
162		163

Informazio gehigarria	Zerga oinarria		Tipo	Jasandako kuota		Kuota kengarria			
	Ondasun arrunten erosketak	70		%4	71		72		
130			%5	131		132			
73			%10	74		75			
76			%21	77		78			
79				80		81			
82				83		84			
Guztira (70) + (130) + (73) + (76) + (79) + (82)			Guztira (71) + (131) + (74) + (77) + (80) + (83)		Guztira (72) + (132) + (75) + (78) + (81) + (84)				
85				86		87			
88			%4	89		90			
Gastuak		133		%5	134		135		
	91		%10	92		93			
	94		%21	95		96			
	97			98		99			
	Guztira (88) + (133) + (91) + (94) + (97)			Guztira (89) + (134) + (92) + (95) + (98)		Guztira (90) + (135) + (93) + (96) + (99)			
	100			101		102			
Inbertsio-ondasunak	103		%4	104		105			
	106		%10	107		108			
	109		%21	110		111			
	112			113		114			
	Guztira (103) + (106) + (109) + (112)			Guztira (104) + (107) + (110) + (113)		Guztira (105) + (108) + (111) + (114)			
Zerga oinarria guztira (85) + (100) + (115)			Jasandako kuota guztira (86) + (101) + (116)		Kuota kengarria guztira (87) + (102) + (117)				
118			119		120				
Laina	Laina aplikatu bada, X jarri beharko da ondoko laukiren batean: Aplikaturako lainaren ehunekoa			Lain orokorra	121		Lain berezia	122	
					123				

Eragiketa espezifikoak	Esportazioak eta beste eragiketa batzuk, kenkarirako eskubidea ematen dutenak.....	124
	Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-emateak	125
	Kokapen-erregelen menpe ez dauden eragiketak (128 laukikoak izan ezik)	126
	Subjektu pasiboaren inbertsioa duten eragiketa lotuak	127
	Kokapen-erregelen menpe ez dauden eragiketak, leihatila bakarraren araubide bereziei heldu dietenak.....	128
	Leihatila bakarraren araubide berezien menpe dauden eta haiei heldu dieten eragiketak	129